



ERREFERENTZIA	Europa Hiritarrentzat Programa 2014-2020 (Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura ZN).
HELBURUA	<p>Programa honek Europar Batasuna herritarrei gerturatzea du helburu eta, zehazki, honen ulermenean lagundu, bere historia eta aniztasuna, eta europar hiritartasuna sustatu eta hiritar-parte hartze eta parte hartze demokratikorako baldintzak hobetu.</p> <p>Programa hiru ataletan banatzen da:</p> <p>1. Europaren memoria historikoa:</p> <p>Zentzurik zabalenean, europar aniztasun kulturalaren eta balore amankomunen inguruko hausnarketa sustatzen duten ekintzen babesa, beti ere, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna aintzat hartuta. Europako historia modernoan izan diren erregimen totalitarioen zergatien inguruan hausnartu eta hauek sortutako biktimei omenaldia egiten dien ekimenentzat funtsak eskuragarri jar daitezke. Atal honek Europako historia modernoan izan diren bestelako erreferentzia puntu eta une definitzaileen inguruko ekintzak hartu beharko ditu bere gain. Iragana gainditzeko eta etorkizuna eraikitzeko, bereziki belaunaldi gazteenei bideratutako eta tolerantzia, elkarrengano ezagutza, kultura arteko elkarriketa eta adiskidetzea sustatzen duten ekintzei lehentasun berezia emango zaie.</p> <p>2. Konpromiso demokratikoa eta hiritarren parte-hartzea:</p> <p>Hiritarren parte-hartzerako ekintzak, zentzurik zabalenean, eta Batasuna mailan elkarrekiko ulermena, kultura arteko elkarriketa, elkartasuna, gizarte-konpromisoa eta boluntariotzarako baldintza lagungarriak sortzea ahalbidetzen duten proiektu eta ekimenak. Gazteriaren parte-hartze demokratikoa eta erabaki politiko eta ekonomikoen deliberamenduetan emakumeen parte-hartzea handitu nahi da.</p> <p>3. Proiektuen analisi, zabalkunde eta emaitzen erabilerarako ekintza horizontalak.</p> <p>Emaitzen transferibilitatea sustatu, inbertsioen etekina hobetu eta esperientziatik ikasteko aukera ematen duten ekimenak.</p>
EKINTZAK	<p>a) Elkarrengano ikaskuntza eta lankidetzak jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Hiritarren bilerak, hirien arteko senidetzeak, senidetutako hirien sareak.- Elkarrengano transnasionalek aplikatutako proiektuak.- Europar dimentsioa duten memoria-ekimenak.- Beste hainbat gauzen artean, informazio eta komunikazio teknologietan edo hedabide sozialetan oinarritutako hartu-emanak. <p>b) Laguntza estrukturala honako erakundeei:</p> <ul style="list-style-type: none">- Batasunaren interes orokorreko helbururen bat duten organoak.- Europako Harremanetarako Guneak. <p>c) Batasunaren mailan azterketa ekintzak, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none">- Programaren helburuen inguruko aferen gaineko azterlanak. <p>d) Kontzientziazio eta zabalkunde ekintzak lagundutako ekimenen emaitzak erabiltzeko eta balioztatzeko eta jardunbide egokiak aurkezteko, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none">- Batasun eskalako ekintzak: hitzaldiak, oroitzapenak eta sari banaketa ekitaldiak.

	- Homologoaren ebaluaketak, adituen bilerak eta mintegiak.
ONURADUNAK	Integrazioa era hiritartasuna bultzatzen duten eraklundeak
AURREKONTUA	185.468.000 euro
GAUZATZE ALDIA	2014-2020
INTERESEKO ESTEKAK	Programa ezartzen duen arautegia EACEA web orrialdea (Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kultura Agentzia Exekutiboa)
INFORMAZIO GEHIAGO	<p>Europako Batzordea Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kultura Agentzia Exekutiboa (EACEA) Unit P7. Citizenship Bour 135-139 B-1049 - Brusela Tel.: 32-2 299 11 11 Fax: 32-2-296 23 89 eacea-p7@ec.europa.eu</p> <p>Europako Batzordea Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia P7 Unitatea, Hiritartasuna Hirien arteko senidetzea Avenue du Bourget, 1 BOUR 00/13 B-1140 - Brusela Fax: 32-2-296 23 89 lacea-p7@ec.europa.eu</p>